

azken epemuga

Ibon
Larrazabal

Elkarr
Irakurriz

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

IBON LARRAZABAL

azken epemuga

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

“And I am bored to death with it. Bored to death with this place, bored to death with my life, bored to death with myself.”

“A word in earnest is as good as a speech.”

“As all partings foreshadow the great final one, so, empty rooms, bereft of a familiar presence, mournfully whisper what your room and what mine must one day be.”

Charles Dickens, *Bleak House*

Nekatuta zegoen epailea, kopetaraino. Behintzat ostirala zen jada, baina astean zeharreko epaiketa oldeak akituta zeukan ordurako. Bat bakarra geratzen zitzaion eta, behin hura kitatuta, asteburu pasa joan zitekeen lasai. Hondartzara joateko gogoa zeukan, hondartzatik gertu zeukan apartamentura, nahiz eta hondartzarako eguraldirik iragarrita ez egon. Hobe horrela. Jende gutxiago pilatuko zen herrian, eta lasai ibiltzeko abagunea izango zuen asteburuan.

Ea ordu erdian azken epaiketa hura kitatzea lortzen zuten. Ustezko mehatxu delitu bat epaitu behar zuen. Hirurogeita hamazazpi urteko agure bat zen akusatua. Bezperan azertu zuen espedientearen arabera, bere etxebizitzan obrak egiten ari zen kontratistari su ematearekin mehatxu egin omen zion akusatuak. Holakoetara ohituta egon beharko lukeela kontratista uste zuen epaileak, haren sektorean usuzkoak ziren atzerapen eta hutsegiteak edonoren pazientziarekin amaitzeko gai baitziren. Edonorenarekin, epaile berarenarekin ere. Ez zeukan ahazteko etxeko sukalde zaharberitu zutenekoa, kontratistari "Zuk ez dakizu ni nor naizen!" lotsagarri hura botatzera iritsi zenean. Ulergarria zen, hortaz, agure gaixo baten pazientziak ere antzeko egoera batean gainezka egitea eta lehertzea. Ganorarik gabeko salaketa bat zirudien hura, ez zuen epailearen aurrera heldu behar izan. Zergatik tematatu zen horrenbeste kontratista salaketa aurrera eramatearekin? Egunero ez al zeuzkan antzekoak ala? Obra kontratuen bere parte behar bezala eta epean burutzen zuen lehenbiziko kontratistaren aurrean zeuden ala? Fiskalak ere, ziurrenik, antzeko iritzia izango zuen, eta ez zen akusatuarekin gehiegi tematuko. Bai, ordu erdian, ordu erdi eskasean, asteo azken epaiketa hura kitatzeko gai izango ziren, alde guztien borondate onarekin.

Ez zeukan itxura txarrik akusatuak aretoan sartu zenean. Adina igartzen zitzaion baina gazteagoa zela, hirurogeita hamar urte baino gutxiago zeuzkala esan baliote ere, berdin sinetsiko zuen epaileak. Traje eta gorbataz jantzita agertu zen epailearen aurrean. Abokatuaren aholkuari jarraituz egin ohi dute hori akusatuak, gizaratearen partaide baliotsuak direla iradokitzeko edo.

Soberan ezagutzen zuen trikimailua epaileak, eta normalean ez zuen akusatuen itxura eta janzeratik ondorioz ateratzen. Orduan ere, aurrean zeukan gizon hura gaizkile bat izan zitekeenik edo inori kalte egiteko gai zenik inork ez zuen esango, baina, antzeko egoeratan, itxura zein gezurti izan zitekeen frogatuta zeukan. Ezin itxuraz fidatu. Ezta orduan ere. Edonola, akusatu honen kasuan, trajea eta gorbata ez ziruditen epaiketarako propio erositakoak, beste kasu askotan nabaritzen zen bezala; aitzitik, akusatuak askotan jantzitako arropak zirela ematen zuen. Bizarra eginda, ile eskasa moztua eta orraztua, serio eta lasai eseri zen akusatua bankuan. Hara! Bazebilen itxuragatik ondorioak ateratzen epailea. Erne egon beharko zuen, ez zezaten nekeak eta presak bere ohiko profesionaltasun maila alde batera uztera bultza.

Fiskalak akusazioaren oinarri ziren gertakariak kontatzeari ekin zion.

Akusatua, X jauna, IGO enpresaren egoitzan agertu omen zen autoen egunean, zuzendari orokorrarekin hitz egin nahi zuela esanez. Zuzendari orokorra batzartuta zegoela erantzun omen zion harrera mahaiko idazkariak eta, beraz, ezin zuela une hartan hartu. X jaunak, entzungor eginez, aurrera jarraitu zuen, “esan behar diodanerako ez dut denbora gehiegirik behar” esanez, idazkariaren lekukotzaren arabera. Akusatua geldiarazten saiatu zen idazkaria, “Jauna, ezin zaitezke hor sartu” oihu eginez, baina, harrera mahaiaren atzetik irten zenerako, X jauna korridorearen barrena oso aurreratua zihoan, erdi herrenka zebilen arren. Ondo ezagutzen zuen bidea, antza. Idazkariaren oihuak entzutean, sarrerako atea gordetzen zuen segurtasun konpainiako zaindaria gertatzen ari zenaz ohartu zen, eta X jaunaren atzetik jo zuen ere, presaka, geldiarazi eta eraikinetik kaleratzeko asmoz.

–Ez bata ez besteak –jarraitu zuen fiskalak–, ez idazkariak ezta segurtasunekoak ere, ez zuten lortu X jauna Zuzendari Orokorraren bulegoan sartzea ekiditea. Harenganaino iritsi zirenerako, akusatuak Zuzendari Orokorraren bulegoko atea zabaldua zeukan eta barruan zegoen jada. IGO enpresako Zuzendari Orokorra, Gorostiza jauna, akusatzaile partikularra auzi honetan, bakarrik zegoen bulegoan, bideokonferentzia batean batzartuta. Bideokonferentziaren konexio datuak dauzkagu hau frogatzeko. Asaldatau egin zen Gorostiza jauna hasiera batean, ezusteko agerraldiarekin, ez baitzuen inor itxaroten; baina segundo baten ondoren, segurtasuneko langilea sartu zenean akusatua sorbaldatak heldu eta, arnasestuka, “jauna ezin zaitezke hemen

egon, eraikina utzi behar duzu” esan zionean, Gorostiza jaunak “lasai” esan zion honi, “ez dago arazorik”, egoerari larritasuna kentze aldera. “Ados egongo zara nirekin hauek ez direla moduak. Batzartuta nago eta ezin zaitut hartu. Beste une egokiago baterako hitzordua adostu genezake”, esan zion X jaunari.

Kontaktaren xehetasun honengatik argi geratu zitzaion epaileari Gorostiza jaunak aurretik ezagutzen zuela X jauna, bestela ez baitzion tonu horretan mintzatuko.

Akusatuak, hala ere, ezer entzun izan ez balu bezala jarraitu zuen. “Esatera natorrena esateko hamar segundo besterik ez ditut behar, nahikoa batzar izan dugu dagoeneko, ez dut batzar gehiagorik behar”, esan zuen. Eta segidan, “gure eraikineko igogailuaren obrak behingoz eta behin betiko, hasiera batean kontratuan hitzartutakoaren arabera, hilabete bateko epean amaitzen ez badituzue, eraikin honi su emango diot. Kontratuan hartu zenuten konpromisori jarraituz burutzen badituzue, ordea, guk agindutakoa ordainduko dugu, atzerapen lotsagarriari ezikusia eginez. Baina bestela guzti hau kiskaliko dut. Hilabete bat daukazu”.

“Eraikin honen ostean zure etxea ere erretzea aurreikusten dut”, gaineratu zuen azkenik akusatuak, Gorostiza jaunaren bizilekuaren helbidea esanez.

Une hartan Gorostiza jauna zutitu eta haserre bizi “Alde, alde nire bulegotik!” oihu egin zion. Segurtasun langileak akusatua besotik hartu, eta eraikinaren kanpoalderaino lagundu zuen. Akusatuak ez zuen erresistentziarik jarri.

Beroaldi bat deskribatzen ari zitzaizkiola iritzi zion epaileak kontakizunari. Ez zirudien beste munduko gauzarik. Egia da ezin daitekeela munduan zehar jendeari mehatxu egiten ibili, baina, tamalez, maizegi gertatzen ziren horren antzekoak eta inori ez zitzaion epaile baten aurrera eramatea bururatzen. Are gutxiago ustezko mehatxuak hirurogeita hamazazpi, ia laurogei urteko agure batek egin dituen.

Kontakizuna ez zen horrekin amaitu, dena dela. Gorostiza jaunak jarritako salaketari erantzunez, poliziak akusatua itaundu zuenean, honek bere asmoak berretsi zituen. Bere abokatuaren aurrean.

Akusatuaren abokatuak, defendatzaileak, adierazpen horiek aintzat ez hartzea erregutu zion epaileari bezeroak haien garrantzia eta ondorioak ez zituela behar bezala ulertu argudiatuz. Epaileak ezin zuen holako argudiorik onartu, abokatuak akusatuaren galdeketa baldin bazegoen bezeroari aholkularitza eskaintzeko, orduan, bezeroaren ezjakintasun, akats edo hanka sartzeak abokatuaren errua baitziren, beste inorena ez.

Hala ere, beroaldi bat izan zela guztia sinesten zuen epaileak, eta X jaunaren ahotik entzun nahi zuen hori, urruntze agindu batekin dena bukatutzat emateko.

Ondoren, gertakarien egunean IGO enpresako egoitzako harrera mahaian zegoen idazkaria eta segurtasuneko langilea deitu zituen akusazioaren abokatuak lekuko gisa. Biek ala biek, fiskalak kontatu bezala gertatu zela guztia berretsi zuten. Gorostiza jaunak ere, epailearen aurrean, horiek izan zirela egitateak zin egin zuen. Lekuko hauetako baten adierazpenei esker, IGO siglek "Ignacio Gorostizaren Oinordekoak" esan nahi zutela jakin zuen epaileak. Enpresaren aktibitatearekin –igogailuak instalatzea– eta jabeen izenekin egindako hitz joko hark auzo lotsaren antzeko zerbait eragin zion epaileari, une motz, ia nabari ezin batez.

Fiskalak hasi zuen akusatuaren galdeketa azkenik, lekuko gehiagorik ez baitzegoen. Haren galderi erantzunez, gertakariak deskribatu zituen bezala jazo zirela berretsi zuen. Gorostiza jaunaren bulegora joan zela, igogailuaren obrak, bost urte lehenago hasitakoak, behingoz amaitzeko agintzera, lehenagotik harekin izandako elkarrizketa guztiek ez baitzuten ezertarako balio izan.

Epaitegi hartan, berari eta bere bizilagunei eragindako kalte, oinaze eta umiliazioen lekukotza emateko aukera izatea erregutu zion X jaunak epaileari. X jauna burutik jota zegoela geroz eta argiago geratzen ari zela pentsatu zuen epaileak, baina eskaerari men egin zion; beharrik gabe luzatzen bazen edo epaitutakoarekin harremana ez zuten gaiak ukitzen bazituen, berak moztuko zuela ohartaraziz.

–Adineko pertsonen komunitate bat gara, epaile jauna, eta adineko pertsonen ez zaigu kasurik egiten. Inon ez. Gazte zara zu eta ez duzu sinetsiko, baina nik ere ez nuen horrelakorik sinesten nozitzen hasi nintzen arte.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan eraikitakoa da gure eraikina. Gazte ginen ere orduan pisuak erosi genituen guztiok. Hamasei pisu guztira, lau solairu bakoitzeko. Bikote gazteak ziren gehienak, ezkon berriak edo oraindik ezkongabeak. Izan ere, bikotekiderik gabe pisua erosi zuen bakarra ni izan nintzen. Eta seme-alabarik izango ez zituen bakarra ere. Garai hartan eta urte luzetan, ez guraso gazteek ezta haien seme-alabek ere, ez zuten arazorik izan eraikineko lau solairuak lotzen zituzten eskaileretan gora eta behera ibiltzeko. Baina urteak joan ziren, berorren adineko norbaitek irudikatu ezin duen abiaduran, eta neska-mutilez hustuz joan zen eraikina. Eraikinak jaiotzen ikusi zituen haur guztiek alde egin zuten, ikastera, lanera, euren bizitzak eraikitzera. Eta nagusiok, haur haien gurasoek eta nik, ia berrogeita hamar urte gehiago geneuzkan. Lau solairuak lotzen zituzten eskailerak proba gogorra bihurtu ziren. Igogailu bat behar genuen, aho batez erabaki genuen, eta IGO konpainiaren sonaz fidatu ginen.

Obraren xehetasun guztiak, behar bezala, kontratu batean zehaztu ziren, egin beharrekoak, epeak, materialak, kalitateak. Guztia. Komunitateko bizilagun baten oniritziarekin sinatu genuen. Erretiratu zegoen bizilaguna orduan, orain dela bost urte, baina haren antzeko obrak egitea izan zen bere lanbidea bizitza osoan, eta benetako aditua zen.

Lizentzia lortu eta berehala hasiko zirela obrarekin agindu ziguten IGOkoek. Hori izan zen lehenbiziko ez betetzea, lehenbiziko gezurra. Lizentzia eskatzean, eraikineko bizilagun guztiak adineko pertsonak ginela adierazi genuen, gure artean ezgaitasun eta zailtasun fisiko eta mentalak zeuzkaten pertsonak zeudela eta, hortaz, igogailuaren instalazioa premiazkoa zela gure eraikinean. Lotsa eta beldur gabe adierazi genuen, egia baitzen eta frogatzen erraza. Hori ikusita, berehala eman ziguten lizentzia, baina, behin lizentzia eskuan geneukala, IGOk ez zuen obrarekin hasi, lizentzia askoz gehiago atzeratuko zela espero baitzuten.

Estreinako gezur hau jasan eta irentsi behar ondoren, azkenik, beraiek nahi edo ahal izan zuten unean obrari ekin zioten. Lehenengo urratsa, igogailuarentzat lekua egiteko, eraikinaren eskailera osoa behera botatzea eta beste berri bat eraikitzea zen. Nahiko azkar egin zuten, eta ez genuen denbora luzerik igaro behar izan gure etxebizitzetatik kanpo (hoteletan edo senideen etxeetan), baina ez zuten ondo egin. Jakina, gure komunitateko aditua izan zen eraikitako eskailera berriaren akatsez ohartu zena. Harengatik izan ez balitz, behera etortzeko arrisku

handia zeukan eskailera bat erabiltzen ariko ginen bizilagunok. Behera bota behar izan zuten hasierako eskailera, eta berriz eraiki.

Bigarren aldi honetan, ordea, materialak ez ziren kontratuan adostutakoak. Komunitateko bizilagunok ez ginen inola ere xehetasun horietaz ohartuko, profesionalak ez ginelako alde batetik (ni, epaile jauna, aduanetako langile erretiratu naiz, esaterako), baina horretaz arduratzeko arkitekto bat kontratatu genuelako ere; baina aditu bat, profesional bat, geneukan gure artean, esan dudan bezala, eta hura jabetu zen desadostasunez, ez betetzeez. Egitura ez zen altzairuzkoa, burdinazkoa baizik; beirak ez ziren 5mm-koak, 3koak baizik; pinuzkoa zen zura, hitzartutakoa kalitate hobegoko bat izan arren... Guk adostutako ordainketak egiten ari ginen, tratua gure zatia betetzen ari ginen, baina ordean jasotzen ari ginena ez zen agindutakoa.

Erreklamatu genuen, kontratuaren eta egindakoaren artean gure adituak aurkitu zituen ezberdintasun guztiak behar bezala xehatuz eta azalduz, baina ez ziguten inolako jaramonik egin. Zaharrak ginelako. Guztiak. Amore emango genuela uste omen zuten, behin obra amaituta erreklamaturako guztia ahaztuko zitzaigula. Presa geneukanez, gure adinagatik, ahalik azkarren amaitzea nahiago izango genuela. Arrazoi zeukaten IGOkoek hein batean, presa izan beharko genuen, denbora gehiegirik ez zitzaigulako geratzen, ez zaigulako geratzen. Izan ere, igogailuaren obra kontratatu genuen hamasei jabeetatik, bi igogailua jarri baino lehen zendu ziren. Ez zituzten gorpuak eskaileretatik jaitsi behar izan, ospitalean hil baitziren biak, baina euren bizilekua izan zen etxetik azken aldiz irten zirenean ez zuten igogailua erabiltzeko aukerarik izan. IGOtik, agian, horrek presa areagotuko zigula sinetsiko zuten. Edo ez: agian bi heriotza hauen berririk ere ez zuten izan. Bost axola haiei.

Obra egiten ari ziren langileak atzerritarrak ziren, ez zekiten euskaraz egiten, ezta gaztelaniaz ere, hortaz, egiten ari zirena kontratuarekin bat ez zetorrela esaten genienean, ez ziguten ulertzen. Agian ulertuko zuten, baina nahiago zuten ez ulertzearen plantak egin, inolako jaramonik egin gabe eurenean jarraitzeko. Aurrerago, atzerritarrak desagertu, eta bertako langile berri batzuk etorri ziren. Horiek primeran ulertzen ziguten esaten geniena, baina kontratuan sinatuta zegoena, eta egin behar zutena erakusten genienean, beraiek aginduak betetzen ari zirela erantzuten ziguten, eta bakean uzteko. Bizilagunen bat, aipatu dudan komunitateko aditua izan

ohi zena gehienetan, tematzen bazen eta egiten ari zirena berriz behera bota beharko zutela ohartarazten bazien, iraindu eta mehatxatu ere egiten zioten. Ez behin ezta birritan ere, hau ez baitzen egun edo aste batzuetako arazoa izan. Bost urte daramatzagu arazoarekin, zorigaiztoko obrarekin. Pentsa beza berorrek zein desatsegina izan daitekeen irainak eta mehatxuak jasan behar izan zure etxean bertan, ordaindu duzun edo ordaintzen ari zaren zerbait eskatzeagatik soilik. Zeren, berriz diot, guk kontratuko gure aldea betetzen jarraitzen genuen, hilero adostutakoa ordainduz.

Egia zenez langileak aginduak betetzen ari zirela, aginduak igortzen zituenarekin hitz egiten saiatu ginen. Igogailua saldu zigun komertzialarekin lehenbizi. Hitz onak izan ziren haren guztiak: arrazoa geneukala, eta arazoa konponduko zutela. Ez zen ezer aldatu. Inolako dei edo gestiorik ere ez zuela egin susmatzen genuen, baina ezin dugu ziurtatu. Komertzialaren desaxola edo utzikeria ikusita, arkitektoarekin hitz egin nahi genuela esan genion, harekin bilera bat antola zezan. Arkitektoarekin batzartu ginen. Eta ziria sartzen saiatu zen. Oker geundela sinetsarazi nahi izan zigun. Frogak erakutsi genizkionean (materialen eta kalitateen desadostasunak, obraren akatsak...), baietz, ados zegoela, eta egoera zuzenduko zuela agindu zigun. Ez zuen deus egin. IGOn zuzendaritzarekin hitz egin nahi genuela esan genien biei, komertzialari eta arkitektoari. Inolako kasurik ez zigutenez egin, ordaintzeari utzi genion. Orduan, ordura arte behar bezala ordaindu baikenuen hilero. Obra behar bezala zuzentzeko nahikoa diru pilatuta zeukatela gure kontura eta, behin zuzenduta, ordainketei berrekingo geniela esan genien.

Une hartan posible izan zen zuzendaritzarekin bilera antolatzea. Eta hara bilera hartan Gorostiza jaunak esan ziguna: eskailera berriz eraiki behar izan zutenez, aurrekontuari eusteko obraren gainontzeko materialetan aurreztu behar zutela. Zur eta lur geratu ginen, zu ere antzeko egoera batean geratuko zinen moduan. Eurek egindako akats batengatik guk ordaindu behar genuela? Zer zela eta? Zertan oinarrituta? Hura ez zen bidezkoa. Guk ez genuen ezer berezirik eskatzen, kontratuan sinatu genuena betetzea baino besterik ez. Arrazoirik ez genuela esan ziguten (esan zigun, Gorostizaren hitzak baitziren), eta negoziatzeko prest ez geundela aurpegiratu ziguten. Baina zer negoziatu? Euren kabuz hartzen ari baziren erabaki guztiak! Guk ez genuen koma bat ere aldatu, ez ginen ezer berririk edo berezirik eskatzen ari. Egina zegoena baino gehiago

ordainduta geneukala, eta obra behar bezala amaitu arte ez genuela gainerakoa ordainduko esan genion Gorostiza jaunari. Eta hark ere ez zuen ezer egin.

Kontsumo Sailean salaketa jarri genuen. Arrazoia eman ziguten, gure aldekoa izan zen ebazpena, baina loteslea ez zenez, IGOk ez zuen ezer egin. Tira, zerbait egin zuten, bai: beste bilera bat. Auzitegietara ez joateko proposamen bat egin ziguten: falta zen diru guztia aurretik ordaintzea guk eta, behin obra bukatuta, soberan ordaindutakoa itzuliko zigutela.

Adarjotze krudel bat zen hura ordurako, gehiegizkoa. Abokatu bat bilatu genuen jabeok auzibidea abian jartzeko. Kontratua sinatu genuen hamasei jabeetatik hamalauk, eta bitartean zendutako bien oinordekoek. Bitartean bost urte joan zaizkigu, bost urte zaharrago gara geratzen garenok, ibiltzeko zailtasun handiagoak dauzkagu, indar gutxiago, geroz eta argi gutxiago buruan, zailtasun handiak Administrazioarekin eta burokraziarekin harremanak izateko... eta inork, inork!, ez gaitu kasurik egiten. IGO bezalako sonadun enpresa handi batek, berak egindako huts batengatik, zentimorik gal ez dezan, guk galdu behar dugu ala? Zergatik? Bidezkoa al da hori? Zuk zer deritsozu, jauna ?

Zergatik jo behar dugu auzitegi baten aurrera? Auzitegi baten irizpidearen araberakoa izan behar da soluzioa? Benetan? Ez dugu liskarrik nahi, ez gara gatazketan eroso sentitzen, eta jabekide guztien izenean hitz egiten dut hau diodanean. Zergatik bultzatzen gaituzte auzibidera, gatazkara? Agian badakitelako auzitegiek ikara eragiten digutela, edo haietara iritsi baino lehen kikilduko garela susmatzen dutelako. Ez al da bihozgabea halako jokaera? Zeren, auzitegiak kasurik egingo al digu? Eta noiz? Noizko aterako da epaiketa? Noiz izango dugu ebazpen bat? Helegitea jarriko diote? Bitartean, itxaroten jarraitu beharko dugu? Zenbat? Noiz arte? Denok hil arte? Edonoren pazientzia eta itxaropenarekin amaitzeko modukoa da egoera.

Hau guztia buruan neukala, Gorostiza jaunarengana joatea erabaki nuen, obra behingoz amaitzea eskatzeko, bururatzen zitzaidan modu bakarrean.

—Hortaz, beroaldi batean izan zen? Ez zenuen benetan sentitzen esan zenuena, ez zenuen benetan nahi. Damutzen zara esan eta egindakoaz – berak aurrez suposatutakoa berretsi nahi zuen epaileak, eta gehiegi luzatzen ari zen epaiketa harekin bukatu ere.

–Ez – erantzun zion X jaunak–. Benetan esan nahi nuen. Benetan esan nuen. Ez zitzaidan IGO enpresaren eta Gorostiza jaunaren borondatea aldarazteko beste modurik bururatzen. Eta entzuna izateko beste modurik ere ez. Horrela, norbaitek behintzat, zuk, entzun gaituzu azkenean.

–Baina nik ezin diot IGOrri obra amaitzeko agindua eman, ez da hori hemen auzitan dagoena. Bestalde, mehatxu delituak kartzela zigorra dakarrela gogorarazi behar dizut, zure abokatuak jada egin duela sinesten dudan arren. Ba al zenekien hori?

–Hirurogeita hamazazpi urte dauzkat, ez daukat ez bikotekiderik, ezta seme–alabarik ere, gurasoak aspaldian joan zitzaizkidan, eta nirekin bizi izan zen azkeneko katua, Platon, hura ere duela urte pare bat zendu zen. Benetan uste al duzu, jauna, nire bizitza gehiegi aldatuko litzatekeela kartzelan sartu beharko banu? Hainbeste urtetan bakarrik eta buruaski bizi ondoren, hemendik lasterrera, ziurrenik, adinekoen egoitza batean, zahar-etxe batean bizitzera joan beharko dut, nire egunerokotasuna nire kabuz kudeatzeko gai izango ez naizelako. Kartzelan sartzeak gehiago beldurtu beharko ninduen ikuspegi horrek baino? Alde handia al dago aukera bien artean ala? Oso antzekoak irudikatzen ditut nik biak. Puzzleak eta eskulanak egiten emango nituen egunak bietan ala bietan, bizilagunekin karta eta mahai jokoan, patioan paseatzen... Lagunen eta senideen bisitak jasoko nituen noizbehinka, bietan, denboran aurrera egitearekin batera elkarren artean geroz eta gehiago luzatzen joango zirenak, lagunen eta senideen zailtasunak areagotzen joango baitziren eta, zoritxarrez, haietako bat edo beste ni baino lehen hilko litzatekeelako. Gaixotuko banintz zainduko nindukete, agian kartzelan zahar-etxean baino hobeto, covid izurritearen tontor gordinenean gertatu zena ikusita. Eta larri gaixotuko banintz, erietxera eramango nindukete. Ala ez? Egia ez den zerbait esaten ari al naiz? Zuk nik baino hobeto ezagutuko duzu kartzelen benetako egoera. Oker al nago ezertan? Ala zinikoegi ematen dut horren lasai mintzatzean? Zintzotasunez, errealtateari begietara begira, noiz eta nola hilko den inork ez dakien arren, nire kasuan ospitale bateko gelan hiltzeko probabilitate oso handiak dauzkadala onartu beharra daukat, daukagu; eta bakarrik, probabilitate handiarekin ere, edo zaintzaile lanak egiteko ordaindutako migratzaile ezezagun baten alboan akaso. Kartzelara joateak edo ez, ez du ikuspegi hori ezertan aldatuko.

Beraz, zure aurrean nagoela aprobeztatuz, nire abokatu, fiskal eta IGOn ordezkarien aurrean, berriz diot: esandako epean, hilabetekoan, gure eraikineko obra amaitzen ez badute, IGOn egoitzak su hartuko du.

–Isildu! –Oihu egin zuen epaileak.– Ez dut horrelako portaerarik baimenduko areto honetan.

Akusatua eseri zen. Lekuko gehiagorik ez zegoenez, akusazioak eta defentsak euren konklusioak aurkeztu zituzten, kartzela zigorra eskatuz bata eta absolutzioa besteak, mehatxuak seriotan egin ez zirela argudiatuz. X jaunaren aurka prebentzio neurriak ezartzea beharrezkoa ez zela ebatzi zuen epaileak –esandakoak esanda ere, arriskurik ez zeukan agure bat baino besterik ez zuen ikusten epaileak– eta epaia egun batzuen epean jakinaraziko ziela esan zien alde biei. Bukatutzat jo zuen entzunaldia, eta asteburu pasa joan zen hondartzako etxera.

Hiru urteko kartzela zigorra ezarri zion epaileak X jaunari, halaxe jakinarazi zion abokatuak honi egun batzuk geroago. Sententziaren aurka helegitea jarriko zuela ere jakinarazi zion eta, hura ebatzi arte –batek jakin noiz arte– akusatua ez zela kartzelan sartu beharko, arriskutsua ez zelako, eta ihes egiteko arriskurik ez zegoelako –epailearen aburuan–.

Hondartzako bere etxean zegoen epaile jauna asteburu pasa. Ederra atera zen eguraldia goiz hartan eta, oraindik opor garaia ez izan arren, jendez lepo zegoen herria jada. Oporrak noiz iritsiko zitzaizkion baino beste ardurarik ez zeukan goiz hartan epaileak. Kafe kikara eskuan, eta presbizarako betaurrekoak sudur puntan, sakelakoan albisteak irakurtzeari ekin zion. Beiren zeharkako lehenengo begirada batean, IGO siglak begiztatu zituen lerro buruetan. Hara! Nonahi topatu beharko zituen handik aurrera ala? Bost aste joan ziren zorioneko epaiketatik, eta dozenaka kasu gehiago epaitu behar izan zituen epe hartan, odoleko alkohol maila gainditu zuten auto gidariak haietako gehienak, eta ustezko lapurretaren bat ere, baina X jaunaren kasuaren bitxitasuna ez zitzaion ahazten. Gehiegi hitz egin nahi zuten pertsonetara ohitua zegoen, baina akusatzaileak izan ohi ziren beti. Akusatuak epaitegia bere aldarrikapenatarako foro publiko

bezala erabili izana ez zitzaion sekula gertatu, are gutxiago bere aurrean akusatua leporatzen zitzaizkion egitateak berrestea eta errepikatzea ere. Denetarik ikusi behar.

Lerro burua adi irakurri zuenean hotzikara bat sentitu zuen bizkarrezurrean. IGO igogailuen enpresa ospetsuko egoitza sute batek kiskali omen zuen gau hartan. Albistearen gorputzean polizia gertatutakoa ikertzen ari zela zioten, sua zerk eragin zuen ziur jakiteko, baina, hasierako miaketen eta lekukoren baten arabera, sua nahita eragindakoa zirudien. Ofizialki baieztatu behar bazen ere, agerkariaren konfiantzazko iturrien arabera, pertsona batek edo gehiagok kaletik eraikinaren leihoetara jaurtitako Molotov koktel multzo batek eragin zuen sutea. Segurtasun kameraren grabazioek egilea edo egileak identifikatzen lagunduko zuten. Iturri berek ziotenagatik, egilea nor izan zitekeenaren susmo sendoak zeuzkan poliziak jada.